

**ELAK FORU-ALDUNDIEI EGINDAKO PROPOSAMENEI BURUZ
JASO DITUEN ERANTZUNEI BURUZKO IRITZIA**

2011ko azaroaren 8a

O- SARRERA

ELAk Foru-Aldundiei joan den irailaren hasieran agiri bat igorri zien (“ELAren proposamenak Foru-Aldundien gobernu ekintzarako”), non sindikatuaren proposamenak bost multzotan biltzen baitziren:

1. Zerga-politika.
2. Gizarte-zerbitzuak.
3. Azpiegiturak eta ingurumena.
4. Sakontze demokratikoa, gardentasuna eta gizartearen parte-hartzea.
5. Foru-Aldundietako langileen baldintzak.

Gure proposamenen oinarritzat EAEn Europako batez besteko datuekiko bi gabezia nagusi izatea hartu genuen:

- Presio fiskala askoz ere txikiagoa da. Hain zuzen, azken datuek adierazten dute EAEko presio fiskala BPGaren %28,8 dela, eta batez besteko europarra, berriz, %38,4 (9,6 puntuko aldea, hots, urteko 6.500 milioi euro).
- Gizarte-babesaren maila ere askoz apalagoa da. Europako batez bestekoa BPGaren %27 da, eta EAEkoa, aldiz, %19 (8 puntu edo 5.400 milioi euro).

Agirian proposamen zehatzak egin genituen, eta azken urteotan aplikatu izan diren politikak goitik behera aldatu behar zirela esaten genuen. Aldaketa hauek are premia handiagoa dira egin diren murrizketei alternatiba bat emate aldera. Halaber, gure proposamenen berri emateko bilerak eskatu genizkien Diputatu Nagusiei.

I- FORU-ALDUNDI BAKOITZAREN ERANTZUNA

a) Bizkaiko Aldundia: eztabaida sozial oro sabotatzeko prest

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Diputatu Nagusiak ELAri, sindikatu nagusiari, ez erantzutea erabaki du, eta gure proposamenei buruzko bilera egitea ukatu du; agerian utzi du demokrazia nola ulertzen duen. Uko honekin bere kargu instituzionalari dagokion gizalegea alde batera uzten du, eta bide batez iraindu egiten ditu gure sindikatuko kide diren milaka eta milaka langileak.

ELAren ustez, erabaki hori aplikatzen diren politikekin lotuta dago. Bizkaiko Aldundiak ez du bildu nahi salaketa egiten dutenekin, guk nabarmen utzi baitugu Aldundiak duen ardura laneko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskalarekiko, baita orain arte ezarri izan den zerga-politika ere, bidegabe enpresa- eta kapital-errenten mesedetan egin baita. ELAk argudioak emanez egindako sakoneko aldaketa proposamenak ez dira euren gustokoak, eta eztabaidarako funtsezko arrazoirik ez dutenez, eztabaidari berari uko egiten diote.

Gizartearen ikuskera hau Jose Maria Iruarrizaga egungo Ogasun Diputatuak agerian utzi zuen, duela urte batzuk esan zuenean ELAk fiskalitateari buruz iritzirik ezin zuela eman, hauteskunde politikoetara aurkezten ez zelako. Haatik, arduradun honetxek esan du opor fiskalei buruz “ugazabek eskatutakoa egin dugu”.

b) Arabako Aldundia: murrizketa gehiago izango dira, eta ez du parte hartzerik bideratuko

ELAk kaleratu zuen Arabako Diputatu Nagusiarekin irailaren 26an izandako bilerari buruzko iritzia. Bilera etsigarria izan zen, Diputatu Nagusia presaka baitzebilen, bere lehentasuna Donostiako Basque Culinary Center-aren inaugurazio ekitaldira joatea izanik.

Batzar hartan begibistan geratu zen ELAren diagnostikoa zuzena dela, baina halere Arabako Aldundiak ez zuen bere politikak aldatzeko asmorik agertu (zergak, gizarte-babesa, etab.). Aitzitik, Diputatu Nagusiak berretsi zuen aurrekontuak orekatzeko bide bakarra gastua murriztea dela, presio fiskalean eta gizarte-babesean dauden defizit nabarmenak gorabehera, eta doikuntza-politikek krisia larriagotu eta langabezia gehitzea besterik ez badakarte ere.

Parte hartzearen inguruan, Aldundiak argi utzi zuen ez duela sindikatuen parte-hartzea, formala izanagatik ere, bideratzeko inongo asmorik. Hain zuzen, bileraren amaieran esan ziguten berriro deituko gintuztela “zerga kontuan iristen diren akordioen berri” emate aldera. Beraz, Bizkaiko kasuan bezalaxe, parte-hartzerik eza eta politika neoliberal zein antisozialak batera doaz.

c) Gipuzkoako Aldundia: proposamen fiskal kontinuitate, gizartearen parte hartzerik gabea

Urriaren 25ean izan zen ELAk eskatutako bilera. Lehenago esan genuenez, Aldundiak hilabetetik gora behar izan du erantzuteko, eta erantzun orduko zerga batzutan erreformak egiteko proposamen zehatza itxita zeukan; horixe eraman zuen Zerga-Koordinaziorako Organora (ZKO). Honek esan nahi du posizioa finkatu duela aurrez inongo parte hartze sozialik zehaztu gabe, gure sindikatuaren proposamenak mahai gainean zeuzkan arren.

Bileran, Aldundiak ez zuen ELAren agiriari buruzko azterketarik egin (hilabete eta erdi lehenago jaso zuen arren). Fiskalitateaz beste ez zuten inongo iruzkinik egin; horrenbestez, ez dakigu ELAk dioenarekin bat datozen edo aurkako iritzia ote duten.

Gipuzkoako Foru-Aldundiak zerga arloan Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea proposatzen du (alabaina, aurrez zegoen erregimenarekin baino diru gutxiago biltzeko aukerarekin), baita hainbat aldaketa PFEZean ere, besteak beste oinarri orokorreko tarifyan bi tarte berri (120.000 eurotik gora, %47a, eta 175.000 eurotik gora, %50a), urteko 1.500 eurotik gora kapital-errenten gaineko zerga %24 igotzea eta PFEZean kenketak egiteko aitor daitezkeen BGAEetarako ekarpenak mugatzea. ELAren ustez proposamen honen ezaugarriak honakoak dira:

- Motzegia da- Aldaketa ia hutsala da. Bilduko den dirua urteko 75 milioi euro gehiago besterik ez da; kopuru hau ezdeusa da, kontutan izanik diru bilketan zenbateko galera ekarri duten hurrenez-hurren ezarri izan diren jaitsierek, Sozietateen Zergan, errenta altuen eta kapitalaren PFEZean eta Ondarearen gaineko Zergan. 75 milioi euro Gipuzkoako BPGaren %0,35 adina da.

Gipuzkoako presio fiskala %30,37koa bada, bera 0,35 puntu gehitzeak lehengo egoera estrukturalen uzten gaitu, hots, Europako batez besteko %38,4tik oso urrun.

- ELAren proposamenetatik oso urrun dago- Besteak beste, hiru desberdintasun nagusi daude. Gipuzkoako Aldundiaren proposamenak Sozietateen gaineko Zerga bere horretan uzten du; iruzur fiskalari jazartzeko neurririk ez du proposatzen; PFEZearen progresibitatea soilik zergadunen %0,6arentzat areagotzen du (aldaketa axalekoa da), eta lan-errentei zen kapital-errentei ematen zaien tratu desberdinari eusten dio. Gehiago sindikalaren dekalogoan egiten zen eskarira, azken urteetako erreforma fiskaletan atzera egitea, ez da inondik ere hurbiltzen.
- Murrizketa politikei babesa ematea- Zerga-politika orain artekoaren oso antzekoa izaten bada, erabaki diren aurrekontu murrizketak aldatzeari uko egiten zaio, murrizketa horiek ondorio larriak dituztelarik: langabezia gehitzen dute, gizarte-babesaren gabezia areagotu, prestazioak murriztu eta oinarritzko zerbitzu publikoek (osasungintza zein hezkuntza kasu) okerrera egitea dakarte.

II- ONDORIOAK

- ELAk bere proposamenei eutsi egiten die, eta hauek aplikatzea premiazkoa dela uste du. Hau bereziki nabarmena da zerga-politikan, egungo errealitate estrukturalarekin jarraituz gero iraunarazi egingo baita zerga-sistema bidegabea nahiz Europar Batasuneko azken postuetan kokatzen den gizarte-babes maila.
- Proposamenak edukien arabera dira onak edo txarrak, ez nork egiten dituen begiratuta. Zapateroren, Rubalcabaren, Nafarroako Gobernuaren zein Gipuzkoako Aldundiaren proposamenak antzekoak dira; guztiek ere egungo zerga-politikari eusten diote.
- Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek iragarri dituzten aurrekontuek murrizteko politikak areagotzen dituzte, desberdintasun batzuk gorabehera. Arabako Aldundiak ere bide horri jarraituko diola aurreratu du.
- Gure proposamenei jaso duten erantzuna ez da inondik ere nahikoa.
- Erakundeen arteko eztabaida fiskalean desinformazioa eta ezkutukeria nagusi dira. ZKOaren hurrengo bilerari buruz egin diren filtrazioek adierazten dute hori. Dena dela, nabarmentzekoa da eragindako erakunde guztiek parte-hartze soziala ukatzen dutela.
- ELAk informazio kanpaina batik ekingo dio, eta mobilizazioak ere egingo ditu, bere proposamenak aldarrikatzeko.